1/2013 foru arauak eskatzen duen bezala, 2017ko aurrekontuarekin batera egonkortasun txostena aurkeztu genuen, bertan azaltzen zen bezala 170.000 eurotako superabita geneukan aurrekontu egonkortasun atalean. Gastu arauaren atalean %-0,15eko bariazioa geneukan.

KOMUNIKAZIOA

Udalaren 1. Kreditu aldaketa egin zen momentutik hasi ginen defizita izaten, eta defizit hori kreditu aldaketak diruzaintza gerakinaren bitartez finantzazleen ondorioa izan zen. Udalaren 8. aldaketaren ondoren 1.112.070,22 eurotako defizita daukagu, 2017an egin diren 1,2, 3, 7 eta 8. kreditu aldaketak eta Kirol Patronatoaren 1. Kreditu aldaketa diruzaintza gerakinaren bitartez finantzatu direlako gertatu da.

Kasu hauen aurrean legeak ondorengoa dio:

Aurrekontu egonkortasuna helburua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordez, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari. Eta gastu arauaren ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordez, 1/2013 Foru Arauaren 5. Artikuluaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Horregatik, legeak adierazten duen bezala ez da beharrezkoa plan ekonomiko-finantzarioa egitea, baina bai komunikazio hau egitea Udalbatzari, eta komunikazio hauen bitartez zenbateko berri, eta eguneratuen jakinarazpenak egiten joango gara.

Zumaian, 2017ko abenduaren 29an
Kontu-hartzailea

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Hau ere kreditu aldaketa bat dagoenean ohikoa da, azkenean momentu honetan egin ditugun azken kreditu aldaketekin aurrekontuak finantza iraunkortasunaren helburua bai betetzen duela, baina gastu arauaren helburua ez du betetzen eta zain egon beharko da likidazioari; orduan ikusiko da beteko duen edo ez. Dena den txosten ekonomiko finantzriorik ez da egin behar finantzaketa diru zaintza gerakinak egin delako eta kontu hartzaileak egin du txostena.

2.4.- PROPOSAMENA.-



Zumaiako Udala **2.4.1.- 2018. URTERAKO TAXIEN TARIFA ONARTZEA, BIDEZKO BADA**

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Hau abenduan ekarri genuen, baina dokumentazioa falta zen eta azkenean udalbatza honen iritzipean jartzen da Gipuzkoako taxisten elkartetik jasotzen dugun 2018rako tasen proposamena eta egiten duten proposamena da 1,6ko igoera.

2018IAKU0001-006-004

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA: 2018. urterako taxien tarifa onartu da

2.5.- IRIZPENA.

2.5.1.- SAN PEDRO KALEA, 2KO FATXADA ERABERRITZEARI DAGOKION ZERGARI HOBARIA APLIKATZEA ETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

**ORDENANTZA FISKALETAN %95eko hobaria barneratzeari buzuko IRIZPENA: SAN PEDRO KALEA 2KO
ERAIKINEAN FATXADA ERABERRITZEKO PROIEKTUA**

AURREKARIAK

2018ko urtarrilaren 26an San Pedro kalea 2ko jabekideek etxebitzako fatxada berritzatzeko aurrekontuarekin batera (Espedientea: 2018 HBLT0002) Zumaiako udalari indarrean den Eraikuntza eta Obren Gaineko Zergen ordenantzak bere 3. artikulan dioenaren arabera, %95eko hobaria aplikatzearen eskaera egin dio. Udaleko Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak Saileko arduradunaren aldeko txostena du.

IRIZPENA

Horregatik, 2018ko otsailaren 22ean ospatzen den batzorde honek onartzten du eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria ematea, hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 2 (EAJ) + 2 (EH BILDU)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabakitzten da.



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA: San Pedro kalea 2ko eraikinean fatxada eraberritzeko proiektuan, %95eko hobaria ematea onartzen da .-

3.- HIRIGINTZA..-

3.1.- IRIZPENAK:

3.1.1.- ZUMAIKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BARRUAN, GKN AYRA DUREX-EK SUSTATUTAKO 15 HA-AYRA DUREX-EKO XEHETASUN AZTERKETARI BEHIN-BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZAKO BADA.-

2018KO URTARRILAREN 30EKO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BARRUAN, GKN DRIVELINE ZUMAIAK SUSTATUTAKO 15 HA-AYRA DUREXEKO XEHETASUN-ESTUDIOARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1.- 2017ko azaroaren 17ko 790/2017 zk. duen alkate Dekretuz, Zumaiko Plangintzako Arau Subsidiarioen barruan, GKN AYRA DUREX-ek sustatutako 15 HA-Ayra Durex-eko Xehetasun estudioari hasierako onarpena eman zitzzion, ezarrita dauden Ierrokadurak eta altuerak aldatuz, enpresak dituen produkzio beharrak, arauetara egokituta egon daitezen.

2.- Xehetasun azterketaren berri 2017ko Urriaren 23ko Hirigintza batzordean berri eman zen.

3.- Indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2017ko azaroaren 23) eta zabalkunde gehien duen lurraldeko egunkari batean iragarkia argitaratuz (DV 2017/11/24) eta agerraldi publikoan egon da 20 eguneko epean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita.

4.- Jendaurrean izan zen epean ez da alegaziorik aurkeztu.

5.- Irizpena jaso dezan Zumaiko Plangintzako Arau Subsidiarioen barruan, GKN AYRA DUREX-ek sustatutako 15 HA-Ayra Durex-eko Xehetasun Azterketa aurkezten da.



Zumaia

2018IAKU0001-006-004

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko Urtarrilaren 30an, ondorengo botoekin

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Jon Iraola Rezola (EAJ)
Josu Arrieta Arriola (Bildu)
Alex Oliden Antia (Bildu)

Kontra: 0
Abstentzia: 0

Hirigintza Batzorde informatiboak ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudeneng gehiengo sinplea beharko da):

- 1.- Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen barruan, GKN AYRA DUREX-ek sustatutako 15 HA-Ayra Durexeko Xehetasun Azterketari behin-betiko onarpena ematea.
- 2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaia, 2018ko urtarrilaren 30a.
Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingorumena eta Udaltzaingoko
Arduraduna

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentziaok: 0 boto

ERABAKIA: 1.- Zumaiako plangintzako arau subsidiarioen barruan, GKN DRIVELINE Zumaia sustatutako 15 HA-Ayra Durexeko xehetasun-azterketari behin betiko izaeraz onartu da

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

3.1.2.- ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN



2018IAKU0001-006-004

Zumaiako Udala ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN LEHEN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2018KO OTSAILAREN 20KO HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA UDALTZAINGOAREN BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN LEHEN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

1.- Udalaren osoko bilkurak, 2017ko maiatzaren 25ean Zumaiako udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua eta gunea jakin batzuen zirkulazioaren eta erabileraren zenbait alderdi arautzeko Ordenantza behin betiko izaeraz onartzea erabaki zuen, akordioan honako xedapena erantsi zitzaion:

2017KO XEDAPEN GEHIGARRIA

- Arautze-aldia: ekainaren 15etik irailaren 15era (egunero).
- Hasierako arautzearen eremua (2017an probaldia): Zubixikitik herriaren barrualdera doana. Hasiera batean 4 zonatan banatuko da. Errortazio handiko zona bat izango du (81 plaza) eta beste bat ordainpekoak (89 plaza, TAOrekin). Ardantzabideko zona urte osoan araututa egongo da. Larretxo zona berezia izango da (ikus erantsitako planoa).
- Egonaldi Iuzeko guneak (aldirietan): Estazioko industrialdea. Kirol-portuko aparkalekua. Loturak Txu-Txu trenarekin eta itsasontzi-zerbitzuarekin.
- Autokarabanentzako gunea: Sarauneko zati batean, kirol-portuan; gehienez bi egunez aparkatu eta kanpatu ahal izango da.
- Poligono ingurua (Alai, Basadi...) babesteko plana: zona horretarako hiru sarbideak erdi ixtea informatzaileen bitartez. Zona horretan bizi direnek dagokien egoiliar-txartela edukiko dute (doakoa) zona horretara sartu ahal izateko.
- Kontzientziatzeko kanpainak: zumaiar guztiei zuzendutakoak, mugikortasun jasangarria eta segura bultzatzeko eta ohitura osasungarriagoz gozatzeko (lehen fasea ezartzen den bitartean eta ondoren). Ibilgailuekiko oinezkoa lehenesteko bidean aurrera egiteko.
- Balorazio-bilerak: 2017ko arautze-aldia bukatu eta gero, bilera batzuk egingo dituzte udalbatza osatzen duten alderdi guztiak barrutik prozesua baloratzeko (teknikoki eta politikoki).
- Herritarrek parte hartzeko bilerak: Udalean ordezkari duden alderdiek esperientzia baloratu zumaiar guztiei dei egingo zaie lortutako emaitzak aurkezteko eta probaldia baloratzeko, horretarako behar diren saio guztiak eginda. Esperientzian oinarrituta, 2018rako plana landuko da, alderdi hauek erabakita: arautze-aldia, arautze-zonak (zenbat, bakoitzak zer kale hartzen dituen eta ordainpeko zonak jarri ala ez), autokarabanen gunean eta egoiliar-txartelak izan dezakeen kostua. Herritarren aldetik bildutakoaren gainean lanean jarraituko da, horretarako "Biharko Zumaiara Boga" plan estrategikoan erabilitako lan-metodologiarri jarraituta; Udalaren bitarteko teknikoak erabiliko dira, eta aztertuko da kanpoko enpresa baten zerbitzu kontratatzeko aukera
- Lan-mahaia: teknikariek, ordezkari politikoek eta araututako zonetako herritarrek osatuko dute; azken horiek aukeratzeko zozketa egingo da parte hartzeko interesa agertzen dutenen aranean.

2.- 2017ko Urrian Balorazio bilerak egin ziren eta jarraian Ordenantzaren lehen aldaketa lantzeko mahai tekniko politikoa osatu zen. Mahai tekniko-politikoa Udal Gobernuak ostalari eta merkatarien ordezkari banarekin indartu zen.

3.- Mahai tekniko-politikoa 2017/12/19, 2018/01/09, 2018/01/30 eta 2018/02/15 elkarte da ordenanza lantzeko.

4.- 2017-10-12, 2017-10-23, 2017-11-14, 2017-11-28 eta 2018-02-20ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzordeetan ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANZA idatzeko irizpideen berri eman da.

**Zumaiaiko Udala**

5.- Ikusirk Udalei trafiko eta zirkulazio gaietan legez ematen zaizkien eskumenena aipatutako ordenantzaren aldaketa egin da.

2018IAKU0001-006-004

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko Otsailaren 20ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udalzaingoaren Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Alex Oliden Antia (BILDU)
Josu Arrieta Arriola (BILDU)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritziaren jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikulan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA-REN LEHEN ALDAKETA-ri hasierako onesprena ematea.

BIGARRENGOA: Ordenantzaren hasierako onesprenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Reklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

ALKATEA: Hau dakizuen bezala aparkaleku inguruaren hilabeteak daramakigun ordenantzaren lehen onarpena, o sea behin behineko onarpena gaur hemen emango dena ekarri dugu eta bozkatzera pasako gara,

JOSU ARRIETA (EH-BILDU): Bozkaren azalpena eman baino lehenago, komentario txiki bat irizpen honekin lotuta zihuan ordenanza ez zen etorri deialdiarekin batera, atzo bazkaldu eta gero jaso genuen eta irakurketa azkar bat eman da, failotxo bat edo topatu dut, media rotacioneko hori, Amaia plazako hori ez dago jasota eta pixkat denbora gehiagorekin irakurtzen badugu ba... akatsen bat bilatzen bada komentatuko da, baina hori ez da gure bozkaren eragina ez du izango.

Aipatzeko lehendabizi zoriontekoa dela; Ordenanza honen bigarrengo fase honetan partehartze prozesua martxan jarri dela eta udaletxeak partehartzea izanda izan dena baina udaletxeak behintzat medioak jarri ditu; Partehartze hori izateko bai merkatariekin, bai ostalariakin ere eskua luzatu zaie eta partehartze hori bermatu da.

Ordenantzarekin zer ikusi dutenak guk azkenean eskakizun batzuek egin genituen eta eskakizunetako batzuek bai kontuan hartu direla baina beste batzuek garrantzitsuak iruditzen zaizkigunak ba ez!. Horien artean dago bat alta errortaziokoa, guk komentatzen genuen aproposa izango zela ez ordaintzea, gune horiek kokatzen dira batez ere merkatari gunetan edo ez? Zumaia arrak ez diren... bai Arroa, edo Itziar edo inguruko jendeak erosketakin egitera datorrenean aparkaleku hori bermatzeko eta iruditzen zitzaigun denbora mugatuta nola dagoen hor ere errortazio hori bermatzen zuela eta ez zeukala zentzua ez, ba kobratzea.

Alderantziz medio errortaziokoarekin, zumaian planteatzen da Zumaia rentzako doan izatea ez? media errortazioko hori lehenengo ordu batzuetan eta nahi



2018IAKU0001-006-004

Zumaiko Udala dugu mugikortasun osasuntsu bat edo mugikortasun jasangarri bat sustatu eta horretako egin dira residenteko guneak zatitu herriean eta media errotazioko adibidez, doan laga Zumaiarentzako hori dela justu printzipio horren kontra doan neurrietako bat.

Gero bai mahai tekniko politikoan ez dago ordenantzakin eragin zuzena ez dauka baina mahai teknikoa politikoan baina bai geratu zela garbi Larretxoko kamara kendu egin beharko zela, ordenantzan ez da jasotzen baina bai lagatzen duela hor –entreredes- horrelako zer edo zer egingo dela eta azkenik aipatzeko tren txu-txuena ez? guk bai nahi genuela azpimarratu tren txu-txua turismo aldetik balorazio positiboa izan duela baina tren txu-txua ezingo litzateke mugikortasunarekin lotu, azkenean garraio publiko batek bermatu behar dituen baldintzak direla bai jasangarria izatea edo airisgarria edo... eta justu tren txu-txua da horren kontrakoa.

Eta arrazoi horiengatik gure bozka abstentzia izango da.

ALKATEA: Gauza asko ekarri dituzu apuntatuta, ez dakit, seguruenik bakarren bat ihesiko zait.

Ahotan dabilgigu azkenengo urte honetan prozesu parte hartzalea eman den ez den, azkenean eman den edo ez den eman, nik uste dut zenbat deialdi egin diren izango da adierazle eman den edo ez den eman prozesu parte hartzale hori, eta gogoratu nahi dizuet 2017an bilera ireki gehiago eman zirela 2017an eman direnak baino.

Komertzioei eta ostalaritzei bere ahotsa eman zitzaien deialdiak propio egin zitzaien beraiei, beraien iritziak jaso eta gero partekatzeko eta oker ez baldin banago hamar bilera izan ziren aurten eman ez direnak, denak kontuan hartuta, bilera guztiak kontuan hartuta.

Beraz, iruditzen zaigu objetiboki begiratuta prozesu parte hartzale bat eman dela, igual ez da izan Bilduren gustukoa bai 2017an eman zen eta 2018an ere bai.

Bigarrenik, egia da ordenantzari dagokionez zer jaso den eta zer ez den jaso bilera mordoxkak egon dira, herritarrak hartzalea parte, komertzioak, ostalaritzak, komertzioa eta ostalaritza guk sartu genituen mahaian, udal gobernuak sartu zituen mahaian, hori ere pixka bat apuntatzeko, gogorarazteko, ostalaritza eta komertzioa mahaian egon baldin badira udal gobernuak gonbidatu dituelako mahaira izan dela, eh?

Hor komentatu duzu komertzioak eta ostalaritza mahaian egon dela eta gogorarazten dizut udal gobernuak proposatu zuela hori horrela izateko.

Bestetik komentatzen duzu 90 minutuko hori, doakoa izan, ez izan, eztabaidea hori egon da mahaian, egia esan lanketa hau egin dugunean ze eremu egoiliarrentzat, ze eremu 90 minuto eta zer eremu media estancia izango ziren adostasunak nahiko errazak izan dira eta bai zuk esan bezala udal gobernuak eta Bildurekiko pixka bat ezberdintasunak edo ikuspegি ezberdinak izan dira batetik 90 minutuko egonaldi errotazio altukoa doakoa izatea izan dela zuen proposamena eta mahai horretan tekniko politiko horretan komertzioak egin zuen proposamena 20 minuto doakoa jartzea eta guk gaur ekarri dugu lehenengo 30 minuto horiek doakoak izatea, ez dakit, erdibidekoak izan den, baina Bilduk esaten zuen 90 minuto doakoak izatea eta komertzioak 20 minutuko proposamena egin zuen eta guk, gaur pleno areto honetara ekarri dugu 30 minutuko hori.

Gero bestetik, zuk ondo esan duzun bezala egonaldi ertaineko kobraatu edo ez kobraatu baita ere hori izan da igual udal gobernuak eta EH Bilduren artean egon den ezberdintasuna, ikuspegি ezberdin bat ez? hori forma emateko orduan, eta



2018IAKU0001-006-004

Zumaiko Udala udal gobernuak bileretan esan bezala iruditzen zaigu eta hori ikusiko dugu gero aurrera ateratzeko gai izango garen baina behintzat udal gobernu honen asmoa iaz bezala aurten ere hiru hilabete horiek biñeta edo udaldiko txartel hori iaz doakoa izan zen, gu ez ginen ados doakoa izateko, guk zerbait kobratzeko alde ginen, Ardantzabidekoei kobraztu zitzaien bezala urte guztirako ba... guk proposatu genuen proportzionaltasun berdinean mantentzea hiru hilabeteko biñeta eskatzen zuten Zumaiarrentzat eta aurten ere guk horrekin jarraitzen dugu kobratzeko izango da zerbait hiruhilabeteko biñeta hori, kopurua eztabaideatu beharko dugu, adostu beharko dugu eta izango da irteten duena hor azkenean ez?

Iruditzen zait edo pertzepzio hori daukat aurten iaz ezin izan genuena, aurten aurrera aterako dugun esperantzarekin gaude, zerbait kobraztuko dela Biñeta eskatzen duenak, eskatze horrek zer du helburu? Helburua baita ere nolabait traba jartzea gaur egun garajea daukanak erabilera zuzen bat egiteko garaje horrena ez? eta erabilera hori ematen den heinean azaleran espazio gehiago edukiko du garajea ez daukan egoiliarrentzat ez?

Hori da helburuetako bat eta horregatik guk aurten ez kobratzearen aldeko apustua egiten dugu Zumaiarrentzat, iruditzen zaigu OTA inplantatzea Zumaian doakoa, egoiliarra, erraztio altua aldaketa handi bat dela, Zumaiar guztioi eragiten digun aldaketa handi bat, Zumaia herria gaur arte ezagutu dugun bezala aldatuko duena eta aldaketa horretan iruditzen zaigu pauso-pauso joan behar dugula eta horregatik gure proposamena izan da aurten behintzat sei orduko hori Zumaiarrok doakoa izatea, esperoan hiru hilabeteko biñeta hori eskatzen duenak zerbait kobraztuko duela eta dagoeneko badela pauso bat ematen dugula zerbait kobratzeko orduan herritarrei ez?

Eta niri iruditzen zait azkenean ohitura aldaketa handi bat ematen ari dela, eragin zuzena daukala lehen esan dudan bezala eta hori da arrazoia guk gaur hona ordenantza hori bere horretan ekartzeko asmoa ez?

Uste dut puntu denak erantzun dizkizudala, ez dakit, bateren bat bidean geratu zaidan baina Josu Arrietak hitza eskatzen du,

JOSU ARRIETA (EH-BILDU): Azkenengotik hasita, media estancia Zumaiarrei kobratzeko ez da afan rekaudatoriogatik bakarrik, ez da afan recaudatorio batengatik planteatzen eh? ez da biñeta kobratzearen truke ez da. Da nahi baldin badugu mugikortasun osasuntsu bat jendeak kotxea etxean lagatzea eta gainera intentzio horrekin egin dira zatikatu residneteko plazak baina media estancian doan lagatzen bazaio aparkatzen ez dauka zentzia residente horiek, gune horiek zatikatzea.

Jadarre pareko aparkalekuak, egin diren aparkaleku berri horiek planteatzen da medio estancia jartza porke residenteak eginen zituzten parke okupatu eta egin da residentes jarri eta media estancia jarri da arrazoi horregatik, baina doan lagatzen bazaio aparkatzen helburu hori ez da lortuko? Horko etxebizitza dutenak hor lanetik bueltatu hor aparkatuko dute eta hurrengo egunerarte kotxea lagatzeko aukera izango dute, es decir, habitos saludable horiek ez ditugu lortuko inplantatzea, poliki-poliki nahi dela egin? Ez dakit.

Eta gero hasiera bueltatuta prozesu parte hartzailean, guk azkenean ez da bilerak egin eta egin, horregatik ez ginen kexu, baizik eta ordenantza lantzeko orduan aukera ematea herritarrei, ordenantza horren lanketan parte hartzeko, ez



2018IAKU0001-006-004

Zumaiko Udala da hamar bilera egin eta guk kexatzen ginen bilerak izan direla informatiboak eta ez parte hartzekoak jendeak lana eta elaboratzekoak, orduan mahai tekniko politikoen sorrerarekin eta zuek ondo egin duzuen bezala gonbidatzen tabernalariak eta ostalariak eta baita heritarrak ere bai, ikusi da parte hartzea ona izan dela, herritar askok proposamen asko egin dituzte eta horietako batzuk onak eta kontuan hartu direnak.

Orduan ez da bilera kopurua hamar bilera egin direla edo hogei, baizik eta bilera horiek ze lan egiteko joera eduki duten, ze dinamika eta horretan zentratzen gara, kontenidoan eta ez kopuruan.

JON IRAOLA (EAJ-PNV): Gauzatxo bat bakarrik, Josu, ez dakit gogoratzen zaren, ari zara habitos saludables eta gauzak esaten, es que joan zen urtean aurkeztu zenuen proposamena zen egoiliar txartelarekin herri guztiak aparkatzea eta han ez zen inondik inora bermatzen habitos saludables, ez dakit,

JOSU ARRIETA (EH-BILDU): Bai, guk hasiera batean planteatu genuen proposamena izan zen gutxi gora behera gaur egun, gaur onartuko dena, a groso modo bai, eta gero bai egin zela prozesu parte hartzalea bakarrik egin genuen herritarrekin eta guk egin genuena da herritar horiek eskatzen zutena udaletxera ekarri, udaletxeen eztabaideatzeko eta udaletxean bai teknikariekin eta bai gainontzeko alderdi politikoekin erabakitzeko zein izango zen behin betiko ordenantza, baina guk egin genuen gauza bakarra da bideak edo lazoak eskaini herritarrei, beraien hitza trasladatzeko, tal cual...

ARRITXU MARAÑON (ES-SV): Simplemente y muy breve sobre todo al hilo de las intervenciones digo que votaré a favor que ya lo adelanto, aunque es cierto que la documentación ha llegado ayer y el tema de plazos pues ahí lo dejo, pero bueno en todo caso la intención es votar a favor siempre que se guarde la legalidad con ese tema y solamente señalar al hilo de lo que se ha comentado porque en este caso yo fui una de las que defendió la tasa cero ó gratuidad como se quiera llamar que dio muchos problemas con intervención además, en base a que considerábamos que el año pasado era una experiencia piloto y así lo defendimos, porque entendíamos que es lo que sucede este año que había que abordar la regulación en el conjunto del municipio y el año pasado no daba tiempo,

De la misma manera que comenté el año pasado que si este año cosa que va a suceder se regulaba el conjunto del municipio lógicamente había que poner una tasa de aparcamiento por zonas que fuese igualitaria para todo el mundo cosa que el año pasado no sucedía porque solo se regulaba una, básicamente una, dos, tres zonas y quedaba toda una parte sin regular y lo quería señalar porque como se ha comentado algo al respecto para que quedase que no es un cambio de posición sino tal como constará en las actas es una evolución hacia lo que ha pasado este año y con el tema también de la gratuidad que se está comentando ahora para la zona de alta rotación y demás en la misma línea consideramos que el cierre se producirá este año pero básicamente el año que viene y que efectivamente puede ser bueno por lo menos este año tratar de dejar ese margen en esa zona durante esas horas para que se pueda acceder



2018IAKU0001-006-004

Zumaiako Udala sin pagar y el año que viene ya cerrar todo el conjunto, sin más para que quede claro por las intervenciones que haga, que haya habido.

ARRITXU IRIBAR (EH-BILDU): Ez bakarrik komentariotxo bat, Josuk lehenengo txalotu eta zoriondu egin du bilera parte hartzaileak eta bilerak nola izan diren eta txarrerako hartu duzu eta ez dakit, zure erantzuna ez da izan behintzat hori ontzat hartuta eta bueno harritu egin naiz, besterik gabe.

ALKATEA: Txarra baino, nik uste dut hemen azkenean iaztik datorren "relato bat" dago ez? EH Bildurena ez? eta relatoa da ez dela egon parte hartzerik ez?

Eta aurten egon da parte hartza eta nik hor azpimarratu nahiko nuke aurten parte hartza egon da eta EH Bilduk parte hartu du bilera guztietañ.

Parte hartu duelako jakituna parte hartze hori eman dela, baina esan beharrean nago, iaz hamar bilera egin zirela hori datu objetiboa dela eta beste datu objetibo bat ere bai da hamar bileretatik EH Bilduko ordezkariak hirutan egon ziren bakarrik.

Orduan parte hartza eman den edo ez den jakiteko bertan egon behar da eta bestela jardutea da euskaraz esaten den bezala, o sea, egon ez baldin bada bertan zaila da jakitea parte hartze hori eman den edo ez eta gero bestetik Jon Iraolak curreratu duen bezala aurreko urtean eta ez dut nahi luzatu gai hau, nik uste dut azkenean guztiok jakindun gara porque azkenean nik uste dut komunikabideetan gehiago zuzentzen zinatela udal gobernura baino, ba... lehengo urteko proposamenak egiten zenitutzenean ez?

Pasa zinaten ezkerretik eskubira baina ezkerretik eskubiko muturrera pasa zinaten erditik pasatu gabe, o sea, bestaldetik, o sea goitik edo... eta orain esplikatzera noa, ezkerretik eskubirako horretan,

Lehenengo proposamena izan zen bi gune poligonoak gune bat eta kasko historikoak beste gune bat, OTA gunerik gabe, errotañio altuko gune bat baino poligono aldekoak poligonoan eta alde zaharrekoak alde zaharrean, hori zen EH Bilduren barrutik landu zen edo irten zuen dokumentua, gero hortik egin ziren bilera ireki batzuek guk parte hartu genuenak baita ere, nahiz eta EH Bildurena izan ba... guk gai hau uste dugu legealdiko gaia dela azkenean, OTAREN hau serio hartzen dugu eta ekarpen guztiak eta iritzi guztiak nahi ditugu entzun, nahiz eta zuek beste relato bat izan ez dugula parte hartza sustatzen ba... ordenantza honek azkenean dauzka teknikoak, oposizioak, udaltzainak, herritarak, komertziantek gestionatu duten enpresak denarena entzun egin dugu eta hortik irten duen... azkenean zuk telebista ikusten baduzu telebistatik sartzen zaizu jasotzen duzuna, eta ordenantza honek azkenean udal gobernuak zerbañit egin izan badu izan da parte hartze prozesu handi bat, handi bat eta parte hartze prozesu handi horietan azkenean nahi eta nahi ez, nahi eta zuk irizpide batzuek markatuta izan eragina izaten du udal gobernu honetan ere bai, edozein ekimen aurrera eramateko orduan, edozein, edozein dela aurrera eramatzen dena eta kasu honetan ere bai, azkenean denok ibiltzen gara kalean eta denoi hurreratzen zaigu herriarra beraien kexuarekin, beraien proposamenarekin eta beraien kexakin ez? eta haserrearekin eta zorionarekin eta azkenean eragiten gaitu



2018IAKU0001-006-004

Zumaiako Udala denak, guri ere bai, pertsonak gara, pertsonak garen heinean denak eragiten digu.

Orduan ordenantzak, iazko ordenantzak eta honek denetik dauka zerbait eta jarriko banintzake irakurtzen esango nizuke hau halako pertsonak esan zidan halako bilera ireki batean, beste honek esan zuen oposizioak, beste halako honek esan zuen idazkariak, beste halako honek esan zuen beste ez dakit zeinek gai izango nintzateke esateko ze puntu zeinek esan duen, orduan parte hartzea hor dago eta eman da.

Bestetik batzordean, ez dakit batzordea izan zen bilera teknikoan edo alderdiak egin ditugun bilera horietako batean, baina zoriondu egin nizuen, eta zoriondu egin nizuen, ba.. bueno azkenean ezkerretik eskubira horretan ibili zareten urtebete honetan, gai honen inguruan orain hartzen duzue jarrera, ba... lehenago pixkat Iraolak esan duena, lehengo urteko azkenengo proposamena zuena zen dena libre, dena dohain, viñeta bakarra eta -ancha es Castilla esaten den bezala, dena libre ibili zaitezte, hori eskatu duzuela eta gu hor linea batzuek edo... ez linea batzuek mugikortasun jasangarria, herri seguru bat, oinezkoa autoen gainean hor markatu gaituen hasiera batetik premisa batzuek eta premisa horien bueltan mugitu izan gara eta mugitzen ari gara.

Eta esaten dut zoriondu egiten zaituztela eman duzuen aldaketa eta iruditzen zait ba... EH Bilduren linean eterri zaretela, azkenean jasangarritasun apustua egitea e.a., bide horretatik zoazte eta nik uste dut ari zaretela zuen espazioa bilatzen eta kokatzen eta definitzen, alderdi batetik pozten gara eh?

Eta besterik ez, pixkat hori zen komentatu nahi nuena gaurko plenoan

JOSU ARRIETA (EH-BILDU): Labur, labur erantzuteagatik bakarrik, aurreko ordenantza hau, lehenengo ordenantzaren borradorean parte hartu ez genuelako aurpegiratu diguzula eta nik uste dut formatua asko aldatu dela parte hartzekoa, nik azkenean aurreko ordenantzan nire auzoko bileran hartu nuen parte eta formatu oso ezberdina da zine batean atril baten gainean zu eta arkitektoa ordenantzari buruz informatu eta gero handik zarraplasta entzun eta listo.

Eta orain egin dena berriz da mahai batean eseri, zuek, bi alderdiak, ostalariak, herritarak inguruan eta herritarak parte hartu ordenantzan, beraiek arazoen jabe egin eta arazo horiei soluzioak bilatzen inplikatu, orduan oso desberdina da parte hartzeko erabili den metodologia,

Hori bakarrik,

ALKATEA: Ados, desberdina da, baina horrek ez du esan nahi ez denik eraman. Hori esan duzu zuk hasieran, ez dela eraman eh?

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)



Zumaiako Udala

2018IAKU0001-006-004

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 6 boto (6 EH BILDU.)

ERABAKIA: 1.- Zumaiako Udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua eta gune jakin batzuen zirkulazioaren eta erabileraren zenbait alderdi arautzeo ordenantza-ren lehen aldaketa-ri hasierako onesprena ematea onartu da.

2.- Ordenantzaren hasierako onesprenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

4.- PERTSONALA.-

4.1.- IRIZPENA:

4.1.1.- ZUMAIAKO UDALEKO HERRITARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA (HAZ) ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

2018KO OTSAILAREN 19KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALEKO HERRITARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEKO.

AURREKARIAK

1.- Gizartearen gertatzen diren aldaketen ispi eta erreferentzia izan behar du Administrazioak, batez ere informazioa eta ezagutza teknologien bitartez nola zabaldu diren aintzat hartuta, eta horrek harremanetarako marko berri bat eskatzen du herritarren eta administrazioen artean. Marko horren giltzarriak hauek dira: berehalakotasuna, zerbitzuak ematerakoan kalitatea eskatzea, prozedurak errazak eta bizkorak izatea, beharrezkoak ez diren karga administratiboak kentzea eta sektore publikoaren jarduera irisgarria eta gardena izatea.

2.- Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak herritarrei bermatzen die hainbat eskubide Administrazio Publikoarekin izango dituzten harremanetan. Are gehiago administrazio elektronikoaren sarrerarekin.

3.- Zumaiako Udala aldaketa horien guztiak jakitun izanda, ezin du alde batera utzi zerbitzuaren kalitate ona eta herritarren arreta egokia emateko konpromisoa. Horretarako, antolaketan beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu Udalaren berritze instituzionala emateko.

4.- Horren guztiaren adierazgarria da Herritarentzako Arreta Zerbitzuaren sorerra. Herritarentzat aurrez aurreko sarbide-puntu orokorra izango dena, eta harremanetarako beste kanal batzuena ere bai, elektronikoki zein telefonikoki.

5.- Aipatutakoa ahalbidetzeko zerbitzua arautuko duen Ordenantza onartu behar da eta bertan helburuak, funtziak eta Udaleko beste sailekin harremanak nolakoak izango diren arautuko dira.

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko otsailaren 19ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Marikruz Alvarez (EAJ)
Gotzon Embil (EAJ)

Foruen enparantza z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Faxa: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • <http://www.zumaia.eus>
e-mail: info@zumaia.eus



Zumaiako Udala

Alex Oliden (EH-Bildu)
Joseba Josu Azpiazu (EH-Bildu)

2018IAKU0001-006-004

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudeneng gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.d) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egindakoa:

- 1.- Zumaiako Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzua Arautzen duen Udal Ordenantza hasierako izaeraz onartzeko.
- 2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den bihamarunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaren arabera.

Zumaian, 2018ko otsailaren 19an

Marikruz Alvarez Aparicio
Personaleko batzordeburua

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Gizartearen gertatzen diren aldaketan isphilu eta erreferentzia izan behar du Administrazioak, batez ere informazioa eta ezagutza teknologien bitartez nola zabaldu diren aintzat hartuta, eta horrek harremanetarako marko berri bat eskatzen du herritarren eta administrazioen artean. Marko horren giltzarriak hauek dira: berehalakotasuna, zerbitzuak ematerakoan kalitatea eskatzea, prozedurak errazak eta bizkorak izatea, beharrezkoak ez diren karga administratiboak kentzea eta sektore publikoaren jarduera irisgarria eta gardena izatea.

Eta herritarrentzako arreta zerbitzu honekin lanketa batean gabiltza eta lehen pausoak ematen ari gara eta udalbatza honen iritzipean jartzen dugu landu dugun ordenantza ez? horren inguruan non pixkat azaltzen diren HAZ horretan emango diren zerbitzuak e.a.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA: 1.- Zumaiako Udaleko herritarrentzako arreta zerbitzua (HAZ) arautzen duen ordenantza hasierako izaeraz onartu da.



2.- Ordenantzaren hasierako onespenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

4.2.- PROPOSAMENA:**4.2.1.- ZUMAIAKO UDALEKO -2. MAILAKO UDALA- DIRUZAINTEA LANPOSTUA AUTONOMIA ERKIDEOAK GAIKUNTZA NAZIONALEKO FUNTZIONARIOEI GORDETAKO LANPOSTU BEZALA SAILKATZEARI DAGOKIONA.**

2018KO OTSAILAREN 19KO PERTSONALEKO BATZORDEAREN IRIZPENA, DIRUZAINTEA LANPOSTUAREN SAILKAPENARI BURUZKOA.

Ikusirk, Zumaiako Udalerriak -2018ko urtarrilaren 1eko datuak hartuta- 10.066 biztanle dituela eta Udalak 13.634.820 euroko aurrekontua daukala (urrekontu bateratua 14.385.599 euro). 1732/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. Artikuluak, Gaikuntza Nazionaleko funtzionarioei gordetako lanpostuak sailkatzerakoan, 2. Mailakotzat jotzen dituela, 20.000 eta 5.001 biztanleko udalerriak. Hortaz, Zumaiako Udala 2. Mailako sailkapena daukala.

Ikusirk, 20.000 biztanle azpiko udaletan (Zumaiako kasua, hain zuzen ere), 2013 urtean 7/1985 Legea aldatu duen arrazionalizazio eta jasangarritasun Legeak agintzen duela diruzaintza lanpostua, kontuhartzaitzatik bereizteaz gain, gaikuntza nazionaleko funtzionarioek beteko dutela. Hortaz, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera diruzaintza lanpostua ezinbestean gaikuntza nazionaleko funtzionario batek bete beharko duela. Aipatu bezala Kontuhartzaitzatik bereizitako lanpostua, hain zuzen ere.

Ikusirk, bada, 2. Mailako udaletan (Zumaiako kasua) diruzaintza lanpostua Autonomia Erkidegoak gaikuntza nazionaleko funtzionarioei gordetako lanpostu bezala sailkatu beharko duela.

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko otsailaren 19an Giza Balibideetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Marikruz Alvarez (EAJ)
Gotzon Embil (EAJ)
Alex Oliden (EH-Bildu)
Joseba Josu Azpiazu (EH-Bildu)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudeneng gehiengo osoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.2 artikulan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Zumaiako Udaleko -2. Mailako udala- diruzaintza lanpostua Autonomia Erkidegoak gaikuntza nazionaleko funtzionarioei gordetako lanpostu bezala sailkatzea.

2.- Osoko Bilkurak sailkapenaren akordioa hartuta, Euskadiko Autonomia Erkidegora expedientea helaraztea beharrezko tramiteak burutze aldera.

Zumaian, 2018ko otsailaren 19an
Marikruz Alvarez Aparicio

Personaleko batzordeburua

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Diruzaintza lanpostua sortzeko eman beharreko pausoak ez?



Zumaiako Udala

Azkenean Zumaiako udaleko diruzaintza lanpostua Autonomia Erkidegoak gaikuntza nazionaleko funtzionarioei gordetako lanpostu bezala sailkatzea eskatzen da, eta gero osoko bilkurak sailkapenaren akordioa hartuta, Euskadiko Autonomia Erkidegora espedientea helaraztea beharrezko tramiteak burutze aldera.

2018IAKU0001-006-004

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA: 1.- Zumaiako Udaleko -2. Mailako udala-diruzaintza lanpostua Autonomia Erkidegoak gaikuntza nazionaleko funtzionarioei gordetako lanpostu bezala sailkatzea onartu da.

2.- Sailkapenaren akordioa hartuta, Euskadiko Autonomia Erkidegora espedientea helaraztea onartu da

5.- PROPOSAMENA.-

EAJ-PNV UDAL TALDEAREN ETA ES-SV UDAL TALDEAREN IZNEAN AURKEZTURIKOA:

"2018KO MARTXOAREN 8RAKO ADIERAZPENA".-

CRISTINA VICENTE (EAJ-PNV): Gure proposamena irakurriko dut

2018ko MARTXOAREN 8rako ADIERAZPENA

Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, "Emakumeok planto. Nosotras paramos" leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartearen duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrek, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere



2018IAKU0001-006-004

Zumaiako Udala emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoitzitako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrek beste emakume batzuen zaintzaapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.

Eta egiten dituzten zereginez harantzago kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonek denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zailtasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

